

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



HERMANN ALBRECHT INSINGER. STADTARCHIV UND LANDESGESCHICHTLICHE BIBLIOTHEK BIELEFELD.

1899KO AZOKA EGUN BAT DONIBANE GARAZIN

Alemaniano Bielefeld hiriko udal artxiboak Hermann Albrectht Insinger (1827-1911) argazkilari afizionatu holandarraren irudiak ditu. Milaka irudien artean, XIX. mende amaierako Euskal Herriko argazkiak biltzen dituen album bat dago; gehienak, estereoskopikoak. Biarritz, Baiona, Getaria, Hondarribia eta Donibane Garazi agertzen dira, besteak beste, irudi horietan. Hermann Albrectht Amsterdamen lan egin zuen enpresaburu eta politikaria izan zen. Erretiratu ondoren, Parise-ra bizitzera joan zen. Hiri horretako 2.000 argazki inguru egin zituen 1889 eta 1905 bitartean. 7.000 irudi baino gehiago egin zituen argazkilari honek Europako hainbat herrialdetara egindako bidaietan. Hermann Albrecthtek egunerokotasuna, gizarte-bizitza eta gizartearen eraldaketa erretratatu zituen urte haietan, baita Erroma, Amsterdam, Zurich, Paris, Bielefeld eta beste hiri batzuetako hirigintza-alaketak ere. Artikuluak erakusten duen irudia 1899ko apirillean egin dago Donibane Garazin, azoka egun batean.